

AZKEN DANTZA MAISUA

ekoizle eragileak: AURTZAKA ETA BEASAINGO UDALA *ekoizpena:* BIRA PRODUKZIOAK

Elkarrizketatuak: MIKEL SARRIEGI · ISABELTXO SARRIEGI · IZASKUN SALAZAR · JUANITO CACHO · JOSU SARRIEGI OIHANE SARRIEGI · ION ORDONEZ
YANYO ALUSTIZA · JAVI ARROYO · IDURRE ESKISABEL · NEREA SARRIEGI · OIER ARAOLAZA · KARMELE SARASOLA · JOSEBA SARRIEGI · MAREN ORTHOUS

Argazki zuzendaria: LEIRE EGAÑA *Edizioa eta Zuzendaritza:* MIKEL ALVAREZ SARRIEGI



Beasaingo Udala



bira
PRODUKZIOAK

SINOPSI MOTZA

Molde zaharreko azken dantza maisua genuen Paxatxo, bera izan baita duela 400 urteko erakusteko modua bizirik mantendu duen azken maisua. Bere heriotzak gogor astindu zuen Beasain, eta azken urteetan oztoporik gabe garai berrietara egokitutako ohiturak, lehen aldiz, etorkizunera begira jarri ditu kezka. Ba al da tradiziozko dantza maisurik gabe? Eta, azkena izango ote da?



SINOPSI LUZEA

Beasain ez omen da herriko ohiturekiko lotura estua sentitzen duen herria, hori diote bederen. Hori dela eta, edo, mimo handiz zaintzen dituzte herria bat bilakatzen duten horiek. Tradizio bakan horien artean, urtero, Loinaz Jaietako astelehen eta asteartean ospatzen diren prozesioa eta soka-dantza ditugu beasaindarrek modu sutsuenean itzaroten dituzten ekitaldiak. Aurtengoan ere, erreleboa bere aitari hartu zion Paxatxo Dantza Maisuak gidatutako zuri eta gorriz jantzitako haurrak, dantzan jarriko dituzte txistu eta danbolinek. Plaza jendez beteko da dantzari txikiak ikusteko eta txaloz eskertuko dituzte gustien dantzak, herriak memoria due-netik gertatzen den bezala. Aurten, ordea, zerbait ez da berdina izango, Paxatxo, azken dantza maisua, ez baita bertan izango.



FITXA TEKNIKOA

Iraupena: 75'

Generoa: Dokumentala

Jatorrizko izenburua: Azken dantza maisua

Hizkuntza: Euskara, gaztelania

Grabaketa formatua: HD

Soinua: Stereo

Azpitituluak: Euskara, gaztelania

Proiektzio formatua: Digitala + DCP

Proporzioa: 1,78:1

Estreinaldi data: 2022ko ekainaren 3a

TALDE TEKNIKOA

Ekoizpena: Bira Produkzioak eta Aurtzaka Dantza Taldea

Zuzendaria: Mikel Alvarez Sarriegi

Argazki zuzendaria: Leire Egaña

Kamerak: Leire Egaña, Eñaut Tólosa, Beñat Iturrioz

Edizioa: Mikel Alvarez

Soinua: Leire Egaña, Lander Llorens

Grafismoak: Oskarbi Sein

Soinu postprodukzioa: Beñat Iturrioz



ELKARRIZKETATUAK



MIKEL SARRIEGI
Aurtzaka Dantza Taldea



ISABELTXO SARRIEGI
Paxatxoren arreba



IZASKUN SALAZAR
Aurtzaka Dantza Taldea




JUANITO CACHO
Dantzari ohia



JOSU SARRIEGI
Paxatxoren anaia



OIHANE SARRIEGI
Dantza irakaslea



JON ORDÓÑEZ
Kazetaria



YANYO ALUSTIZA
Pasatxoren laguna



JAVI ARROYO
Pasatxoren laguna



IDURRE ESKISABEL
Kazetaria eta EHUko irakaslea



NEREA SARRIEGI
Dantza Maistra



OIER ARAOLAZA
Dantzan Elkartea



KARMELE SARASOLA
Lehen Dantza Maistra



JOSEBA SARRIEGI
Pasatxoren semea




MAREN ORTHOUS
Lehen emakume espata-dantzaria

ZUZENDARIAREN MEMORIA

Askotariko proposamenak jasotzen ditugu Bira Produzekzioak ekoiztetxean, baina gutxi izan dira, Aurtzakako kideek eskaini zigutena bezain bereziak. Arratsalde batean gerturatu zitzaizkidan Mikel eta Izaskun buruan zuten ideiarekin. Hasieratik garbi izan nuen bai hala bai aurrera atera behar genuen proiektua zela, eta denborarik galdu gabe, lanean jarri ginen esperientzia ahaztezin zein gozagarria izan den elkarlana abiatuz.

Nire bihotzean leku berezia gordeko duen dokumentala izango da betiko "Azken Dantza Maisua". Alde batetik, ni neu ere, ehundaka dantzari horietako bat izan nintzelako. Baina bereziki, Paxatxo, edo Jabi niretzat, osaba nuelako. Ardura zein motibazioz ekin genion lanari eta izugarri hunkigarri gertatu dira ekoizpen, grabaketa eta edizio lanak.

Ezagutsen nuenean sakontzeko eta gauza berriak ikasteko balio izan dit esperientziak, eta ez naiz gure tradizio edo historiaz bakarrik ari. Dantzak, hori baino askoz gehiago biltzen du.



TALDE TEKNIKOAREN IBILBIDEA

ZUZENDARIA: *Mikel Alvarez Sarriegi*

1982an jaio nintzen Beasainen ikastola andereño eta sindikalista baten etxean. Beti izan dut garbi nirea istorioak kontatzea zela baina nerabezaroko behe-lainoak gidatuta Soziologian lizentziatzen amaitu nuen Leioako Campusean. Eta eskerrak, horrek eman baitzidan nire ametsei heltzeko behar nuen indar eta lasaitasuna. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nuen gero MUn eta handik lan merkatura jauzi egin nuen buruz. Nire aisialdian telesail proiektuak garatzen aritu naitz gidoilari moduan Moriarti, Orio edo Irusoin bezalako ekoiztetxeekin baina nire eguneroko bizitza Goierrri Irrati Telebistan igaro dut gidoigile, aurkezle, kamera, editore, programatzaile, tekniko, igeltsero edo bonbilak aldatzen. Gaur egun, Bira Produzioak ekoiztetxean nabil nirea den horri bide eman nahian, istorioak kontatzea, hain zuzen ere.

PROIEKTUAK:

2022 ~ BEKADUNA (*webseriea*)

BIRA PRODUKZIOAK & HIRU DAMATXO ~ Zuzendari eta gidoigile

2022 ~ MUNDU BERRI BAT (*Film laburra*)

KATIHOTSAK ~ Zuzendari eta gidoigile

2020 ~ ALTSASU (*Telesaila*)

BALEUKO & ETB ~ Gidoigile eta 2. unitateko zuzendari

2020 ~ BEHOBIA, EHUN URTE HESIAK IRAULTZEN (*Dokumentala*)

BIRA PRODUKZIOAK & FORTUNA ~ Edizioa





TALDE TEKNIKOAREN IBILBIDEA

ARGAZKI ZUZENDARIA: *Leire Egaña Blanco-Argibay*

*1988an jaioa Oñatin. Zuzenbidetza eta Zientzia politikako ikasketak uz-
tartzen nituen gidoigintza klaseekin batera. Ikasketak burutu bezain
askar, hegaskin bat hartu nuen Londresera zinemagintzako ikasketak
burutzera. Ikus-entzunesko eremu desberdinetan aritzeko tresnak ikasi
nituen bertan. 2016an Donostiara itzuli nintzen hainbeste maite dudan
zaletasun hau Euskal Herrian ogibide bihurtzeko. Proiektu propioak ga-
ratzeaz gain, sortzaile desberdinekin kolaboratzeko aukera eduki dut
(Lander Garro, Galder Izagirre, Izaskun Arandia, Maru Solores...),
2021ean Bira Produktzioak-era iritsi naizen arte non, nire kideekin
batera, istorioak kontatzeko pasio hau ogibide bihurtzen dugun egunero.*

PROIEKTUAK:

2022 ~ KZ50, ZINEKLUB BATEN ISTORIA (Dokumentala)

KRESALA ZINEKLUBA & BIRA PRODUKZIOAK ~ Zuzendari eta editorea

2022 ~ EUROPA (Film laburra)

MIROKUTANA & BIRA PRODUKZIOAK ~ Argazki Zuzendaria

2022 ~ ERLOJUPEKOA (Film laburra, Bost Teilatu luzemetrai kolektiboa)

UDALBILTZA & BIRA PRODUKZIOAK ~ Zuzendari eta gidoigile

2021 ~ BIDEGURUTZEAN (Telebista saioa)

ETB & FOKU ~ Kamera operadore eta Editore

EKOIZPENA

BIRA PRODUKZIOAK

Bira Produksioak, 2017an sortutako kooperatiba gara. Ikus-entzunezko komunikazioa, bideogintza eta gidoigintza lanak egiten ditugu, baita publizitatea, ekitaldien jarraipenak edota bideoklipak ere. Kamera bidez errealitatetik jasoak batzuetan, eta animazio bidez gure irudimenetik aterakoak besteetan. Ideia jario horrek mantentzen du Bira Produksioak bihotza bizirik, eta ideia jario horrek sortutako olatuan surfeatu nahiko genuke. Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarritzat hartuz, Euskaraz, eta euskal iruditerian gure alea jarritz. Eduki propioak ekoiztera eramango gaituen bidea egin asmoz, izokin koloreko azulejuz atondutako bide eder eta dibertigarria.

AURTZAKA

Aurretik lanean ari ziren "Goierri" eta "Salleko Adiskideak" taldeak elkartuta, 1979. urtean sortu zen AURTZAKA dantza taldea Beasainen. Gaur egun, Goierriko dantza ohitura eta tradizioekin lan egiten dugu nagusiki, bertako zenbait ohitura berreraikiz, sustatuz eta bizitza berri batez eutsiz. Esate baterako, 90eko hamarkadan Goierriko agintarien sokadantzak berreskuratzen aritu ginen; Goierriko tradizio dantsatua eta ondarea ikertu ditugu luze eta sakon; 2007an Igartzako dantzarien Kofradia sortu eta bertako Espata-dantza berreraiki genuen; baita 2008an Sanjoanetako esku-dantza ere; 2015. urteaz geroztik herriko jaietako Loinazko dantzen ardura hartu genuen gogotsu. Horrez gain, bai Euskal-Herrian bai atzerrian eginak ditugu hainbat emanaldi eta jira, hala nola Espainian, Europan eta Amerikan, gure ondare dantsatua erakusteko eta hedatzeko aukera baliatuz.

BEASAINGO UDALA





Kontaktua:

MIKEL ALVAREZ SARRIEGI

mikel@biraprodukzioak.eus

T. (0034) 636788991